

Brundibár

Umeendako Opera bi ekitalditan

Musika: Hans Krása
Libretoak: Aldolf Hoffmeister



GIDA DIDAKTIKOA

Isabel Domínguez
Eva Gómez
Ana Hernández

Koordinazioa:
Fernando Palacios

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Egilea: Hans Krása (Praga 1899 - Auschwitz 1944).....	4
3. Libretoaren egilea: Adolf Hoffmeister (1902 - 1973).....	5
4. Opera.....	6
5. Terezíngo umeak.....	8
6. Musika harresien atzean.....	14
7. Mutiko judu baten egunerokoa.....	17

ARIKETAK

1. Sinboloak eta besokoak.....	20
2. Leihoetako abesbatza.....	21
3. Azokako kanta.....	22
4. Organilo-joleak eta organiloak.....	24
5. Akordeoiak.....	26
6. Animaliaarena egiten.....	29
7. Azken korua martxa pausoan.....	30

ERREFERENTZIAK ETA BIBLIOGRAFIA.....	32
--------------------------------------	----

1. Sarrera

Brundibar opera Txekoslovakia zaharrean konposatu eta estreinatutako opera da. Europa erdialdeko herrialde txiki hau Lehen Mundu Gerraren amaieran, 1918an, sortu zen, Txekia eta Eslovakia errepublikak baturik. Europako beste herrialde batzuk bezala, Hitlerren asmo hedatzaileek harrapatu zuten, eta 1938an inbaditu egin zuten. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, alderdi komunistak hartu zuen boterea. 1992an, parlamentu federalak herrialdea bitan zatitzea erabaki zuen, Txekia eta Eslovakia Errepublikak onetsita.

Terezín aspaldiko kokaleku militarra zen, 1941an alemanek ghetto bihurtu zutena. Harresiz hornitutako hiri txiki hau Auschwitzeko heriotz-eremurako bideko igaroleku gisakoa izan zen. Nazien propagandak, ordea, "bainu-hiria" zelako ideia zabaldu zuen, judu zaharrak bertara segurtasunez erretitazen ahal zirela esanez. Bertara eraman zituzten hirurogei urtez goitiko juduak, politikariak, artistak eta jende ospetsua.



Juduak Terezín-era iristen
Egilea: Helga Wissowa neskatila



Terezínerako iritsiera (Theresienstadt)

1944an Gurutze Gorriak bertara egindako bisitaldiak ghetto hartan bizi zirenen bizimoduan zenbait hobekuntza ekarri zuen, izan ere, kontua hiri hura paradisia zela irudikatzea baitzen. Hori erakusteko, "Führerek hiri bat eman die juduei opari" pelikula egin zuten, leku hartako bizimodu zoragarria biltzen zuena. Han eman zuten ikustera Brundibár opera hamaika aldiz, bertan bizi ziren juduak zirela antzezle.



Terezín,
Malvína Schalkova

Domínguez I., Gómez E. eta Hernández A.

2. Egilea: Hans Krása (Praga 1899 - Auschwitz 1944)

H. Krása musikagile judua gaztetatik nabarmendu zen bere musika-dohainengatik: hamaika urte zituenerako bere zenbait konposizio jendaurrean emanak ziren. Alexander von Zemlinsky izan zuen maisu. Idatzi zituen lanak, besteak beste, ganbera eta orkestrarakoak, kantak, operak eta agertokirako bestelako musika lanak izan ziren.

Brundibar 1938an idatzi zuen, Txekiako Errepublikako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak antolatutako lehiaketa baterako, baina 1942an eman zen lehen aldiz jendaurrean, Pragan, juduendako umezurtegi batean. Hans Krása deportatu egin zuten Terezín-go zigor-eremura, garai hartako artista eta intelektual judu hainbatekin batera. Han, musika egiten aritu zen buru-belarri, orduan konposatutako zenbait lan galdu badira ere. Brundibár, ordea, 55 aldiz eman zen jendaurrean Terezíngo ume juduen laguntzaz, eta sekulako arrakasta lortu zuen. 1944an hil zen Hans Krása, Auschwitzeko zigor-eremuan.



H. Krása eta A. Hoffmeister

3. Libretoaren egilea: Adolf Hoffmeister (1902 - 1973)


A. Hoffmeister txekiar karikaturaren maisua izan zen Brundibár operaren libretoaren egilea. Artista polifazetiko honek 1200dik goiti margolan, karikatura, irudi eta kollage utzi zizkigun. Publizista, poeta eta bidaiari sutsua ez ezik diplomatikoa ere izan zen. XX mendean Txekia Errepublikan ospetsua izan zen Devetsil abangoardiako elkartearen sorreran esku hartu zuen. Garai hartako politika eta kulturaren munduko pertsonai ospetsuei egindako karikaturek agerian jartzen dute norainoko gaitasuna zuen pertsona bakoitzaren ezaugarriak adierazteko. Bidaiari gisa hartutako oharra eta bizipenak bere irudiez hornitutako zenbait liburutan bildu zituen.



Sartre, A. Hoffmeister

Bigarren Mundu Gerra piztean AEBetan babestu zen A. Hoffmeister, eta bertatik argitaratu zituen fazismoaren aurkako artikuluak eta karikatura politikoak. Han idatzi zuen *"Itsuaren Xirula"*, naziek txikitutako Lidice txekiar herriskari buruz, bai eta Hans Krásaren *Brundibár* umeendako operaren libretoa ere, umeek emanen zutena jendaurrean Terezingo ghetto zaharrean.

Bere herrira itzulirik, goi mailako karguetan aritu zen Hoffmeister erregimen komunista berrian. 1968an, soviatarren armadak Txekoslovakia inbaditu ondoren erabat utzi zuen bizitza politikoa eta soziala. 1973an hil aurretik, kollage bilduma zoragarri batez eman zion amaiera bere ibilbide artistikoari.



4. Opera

Jatorrizko argumentua:

Aninka eta Pepicek anai-arrebek esnea erosi behar dute euren ama gaixoarentzat, baina ez dute dirurik. Dirua lortzeko, Brundibárrek, herriko organileroak alegia, egiten duen gauza bera egitea erabaki dute. Honek, ordea, plazako jaun eta jabe bera dela uste du eta handik alde eginarazten die. Zorionez, txolarre bat, katu bat eta zakur bat agertzen dira anai-arrebei laguntzeko eta, herriko gainerako umeekin batera, seaska-kanta zoragarria kantatu eta esnea erosteko adina diru biltzea lortzen dute... Brundibár gaiztoak, baina, ez bat eta ez bi, ebatsi eginen die dirua. Umeek, lagun berrien laguntzaz, hura harrapatzea eta dirua berreskuratzea lortzen dute, eta musikaria bertatik kanpora egozten dute, azkenik garaipen ereserki alaia kantatuz.

Antzezpena:

Bertsio honetan opera ikuspegi berri batetik lantzen da, oraingo honen asmoa zera baita, Terezín (Theresienstad) hirian egindako antzezpenak garatu zireneko prozesu bitxia agerraraztea.

Beraz, ikuskizun honek *Brundibár* operarako Terezín hiriko estseguen prestaketak eta gorabeherak erakutsiko dizkigu. "Ghetto"ko eskolan bertan du hasiera, *Kründigar* ofizialak *Krásá* konpositorea estu hartzen duelarik, operaren azken ukituak eta entseguak garaiz amai ditzan, Gurutze Gorriko gonbidatu talde bati erakutsi ahal izateko.

Umeak *Helga* kantu irakaslearekin prestatzen dira, bera baita *Krásaren* laguntzailea entseguetarako. Ikuskizunean barna, *Brundibár* opera bera entseguetan ezagutu eta bidenabar, Terezín hiriko eguneroko gorabeherak ezagutzeko aukera izanen dugu: nazi soldadu harroputzekiko harreman zailak, janari eskasa umeei banatzeko unea (hauek goseak baitaude eskolan gogor lan egin ondoren), Gurutze Gorriko ordezkarien aurrean erabilitako propaganda-estrategia, Terezín hiriko biztanleak Poloniako zigor-eremuetara eramateko unek... Musikagileak berak bizi eta gainditu ezin izan zuen bizipen latza.

Instrumentazioa:

4 Biolin	Klarinete
Bilontxelo	Tronpeta
Kontrabaxua	Kitarra
Akordeoa	Perkusioa
Xirula	Pianoa

Pertsonaiak:

Ikuskizuneko pertsonaiak ezagutzeaz gain, Monica Florensak diseinatutako jantzien zenbait figurin ikus ditzakezue:



Pepicek



Haren arreba,
Aninka



Hans Krása
musikagilea



Helga, umeen
abesbatzaren
zuzendaria



Yurek, kale garbitzailea / Brundibár



Karl Kründigar,
Oficial nazia



2 soldadu



Umeak:

Pepicek, Aninka, esne-saltzailea, poliziak, izozki-saltzailea, okina, txolarrea, katua, zakurra, leihoetako Abesbatza, Abesbatza nagusia (ikastetxeetakoa).

5. Terezíngo umeak

Bohemian bada Terezín izeneko leku bitxi bat. Pragatik 60ren bat kilometrora dago. Austriako Jose II Enperadorearen aginduz sortu zen orain dela 200 urte, izena bere ama Maria Teresaren ohorez eman ziolarik. Injenieri militar italiarrek egindako planoen arabera eraiki zuten, eta 12 lubeta edo terraplen ditu, guztiek bat eginik, izar bat osatuz, hiria hertsiki egiten dutela. Gotorlekua izan behar zuen, baina azkenean kokaleku militarra izan zen, koartelak zirela nagusi. Baziren etxeak, ostatuak, postetxea, banketxea eta garagardotegia.

Eliza ere bazen, estilo zuhurrekoa eta koartelaren jabegoa zena, komunitate militarren zati gisa. Hiri txiki hura paisai lasaiaren erdian indarrez kokatu zela dirudi, inguruan muino samurrak, belar soroak, fruitondoak eta zumarrak baitira nagusi.




Terezín egun airetik ikusia

Baina Terezín, gerraren garaian, gose eta beldur hiria bihurtu zen. Hara eramantzen zituzten familia judu anitz beren umeekin, han bizi behar izan zuten horma eta patio artean "ghetto"an, kabitu ezinik, euren etxeetako erosotasuna atzean utzirik, lagunengandik bereizirik eta euren auzo eta ikastetxeak bertan abandonaturik.

Umeak koarteleko patioan eta lehenago etxe izandakoen patioetan aritzen ziren jostaketan. Batzuetan baimena ematen zieten terraplen haien goialdean aire fresko pixka bat arnasteko. 14 urtez goitikoek tailerretan lan egin behar zuten, eta ordurako helduen bizimodua egiten hasten ziren. Batzuetan lorategietan lan egitera atera eta ez ziren handik aurrera ume gisa tratatuak izaten. Txikienek txontxongiloen antzerkia eta antzerki taldeak zituzten, maitagarrien ipuinak antzezten zituzten eta umeendako operak ere bai.

Terezínen bizi eta, aldi batez bederen, jostaketan, marrazten eta ikasten aritu izan ziren 15.000 umeetatik, 100 itzuli ziren, besterik ez.

EZ DUT PINPILINPAUXARIK IKUSI HEMEN BARN
Terezín, artea heriotzaren aurka




Terezínen bizi ziren umeez helduek ikusten zuten guztia ikusten zuten eurek ere: janaria banatzeko lerro amaigabeak, hiletetako autoak, gaitzak jotako pertsonak... Baina helduek ikusi nahi ez zutena ere ikusi egiten zuten eurek – hiriko ateetatik haratagoko edertasuna, soroak eta muinoak, errepidea “Praga”rantz, urrunean galtzen zela, txoriak, animaliak, pinpilinpauxak – . Guztia harresien bestaldean zen, eta urrundik antzematen ahal zuten, koarteleko lehioetatik, eta harresi gotortuetatik, hara joateko baimena zuten aldi bakanetan. Gainera, helduek ezin ikusi zituzten beste hainbat gauza ere ikusten zituzten ume haiek – harribitxiak diademak zituzten printzesak, sorginak eta azti gaiztoak, pailazoak eta gizaki aurpegia zuten kakalardoak, zorionaren herria, sarrera koroa bat balio zuena eta denetik zegoena – opilak, goxokiak, esne eta limoi urezko errekek- Euren etxeko logela ere ikusten zuten, lehioetako gortinak eta katua...

Hori eta beste gauza anitz ere margotu eta marraztu zituzten, gogoko baitzuten margotzea eta marraztea, goizetik gauera.



Ghettoko jantokia



Marika Friedmannová, 1932.8.6 – 1944.10.4, 12 urte
 Terezín-en margotuta

Poesiak idazten zituztelarik, euren aldartea aldatu egiten zen: “Terezíngo mina” edo “galdu nuen neska-laguna” zituzten mintzagai, beste nonbaitera abiatzeko irrika, jende hobia aurkituko zutelakoan, bertan zeuden gizon-emakume zaharrak, otorduko ogi gogorra eta patata ustelak marruskatzen zutela, “etxe mina” zegoen, eta “beldurra”. Bai, beldurra somatzen zuten, eta hari buruz mintzo ziren euren poemetan, kondenaturik zeudela bai baitzekiten. Beharbada helduek baino hobeki zekiten.

Hala ere, euren marrazki eta poemak mintzo zaizkigu; horiek dira euren ahotsak, egundaino iraun dutenak, oroit-hotsak, egia eta esperantza hotsak.

Hona hemen haietako zenbait.

Domínguez I., Gómez E. eta Hernández A.

Terezíngo umeez marrazkiak eta poemak

PINPILINPAUXA

Azkena, hain zuzen ere azkena.
Horia, hain distiratsua.
Beharbada eguzkiaren malkoek
harri zuria ukituko balute...

Hain, hain horia.
Hegan, goiti egiten zuen arin.
Han joan zen, seguruenik munduari
azken agurreko muxua eman nahi zion.


Zazpi aste dira hemen bizi naizela
ghetto honetan hertsirik
Baina nire jendea aurkitu dut hemen,
loretxoek hots egiten didate
eta patioako gaztainondoaren adar zuriak ere bai.

Hura izan zen azkena.
Pinpilinpauxak ez dira hemen bizi
ghettoan

Pavel Friedmann, 1921.1.7 –1944.9.29, 23 urte
Ez dut gehiago pinpilinpauxarik ikusi



Margit Koretzová, 1933.4.8.- 1944.10.4, 11 urte



Irena Karpelesová, 1930.12.30 – 1944.10.23, 14 urte



Sonja Fischerová, 1931.3.16 – Bizirik atera zen



TEREZÍN

Behin umea izan nintzen,
orain dela hiru urte
bestelako mundu baten grina zuen umea.
Dagoeneko ez naiz umea,
oinazea ikusi baitut
Orain heldua naiz
beldurra ezagutu dut.

....

Han urrunean, haurtzaroa lo gozoan deneko hartan,
zuhaitz arteko bidezidorrean,
egun batean harro eta alai nindueneko
etxe hartan.


Lorategian, lore artean,
Amak mundura ekarri ninduen lekuan
Negar egin ahal baneza...

.....

Han lo diren 30.000 arima hauek
zuhaitz artean esnatuko dira
begiak ireki eta
gauza anitz ikusiko dituztenez

Berriz ere lo geratuko dira....

Hanus Hachenburg, 1929.7.12- 1944.7.12, 15 urte



Robert Bondy, 1932.5.1 –1944.10.6, 12 urte



Margalit Ullrichová, 1931.6.18 – 1944.10.16, 13 urte



HAINBAT GALDERA ETA ERANTZUN BAT

Jendeak zertarako du zientzia ederra?
Zertarako balio du emakumeen edertasunak?
Zertarako balio du munduak, eskubiderik ez delarik?
Zertarako da eguzkia, egunik ez delarik?

Zertarako da Jaungoikoa? Zigorrezko ote?
Edo jendea hobea izan dadin?
Pizti hutsak ote gara, sufritzen dugunak
pasioaren uztarria barnean ustel dadin?

Bizitza zertarako da, oinazea besterik ez bada?
Mundua zergatik da harresia erabat?
Bai seme, gauzak diren bezala dira
Zeu gizon izan zaitezten. Eta borroka egin dezazun!

Hanus Hachenburg, 1929.7.12 – 1944.12.10, 15 urte

Ikasleekin gogoeta egin eta mintzatzeko

Filosofia-piruletak (8urtetik goiti)

S.M. Argitalpenak

Egileak: Brigitte Labbé – Michel Puech

Estos libros-cuadernillos ayudan a los niños a reflexionar sobre las preguntas importantes que se plantean. Son libros claros y directos para introducir a los niños en el mundo de las ideas.

- Gerra eta bakea
- Bizitza eta heriotza
- Bortizkeria eta bortizkeria eza
- Zuzenbidea eta bidegabekeria

Aita, zer da arrazakeria? (10 urte)

Egilea: Tahar Ben Jelloun

Arg. Alfaguara Infantil

6. Musika harresien atzean

*"Zenbat denbora da honezkero
Eguzkia Petrinen atzean sartzen
azkenekoz ikusi nuenetik...
la urtebete da zulo honetan nagoela
bi karrika eskas ditu zure etorbideen ordez
Kaiolan giltzapetutako basa piztiaren moduan..."*

Petr Ginzek Terezinen 1942an, 13 urte zituela, idatzitako poema



Harresia zeharkatuta atereaz.

Testuinguru honetan aukera eman zitzaizen musikariei, ia behartu ere bai, musika egin zezaten, munduaren aurrean preso juduekiko tratua ona eta ongizatearen itxura ematearren Alemaniako erregimen Nazional Sozialistaren aldetik. Haietako asko kontratatu zituen zigor-eremuko Administrazioak "Aisialdiko Jarduerak" antolatu eta kudeatzeko, era horretan aukera izan zutelarik artista anitzek, harresi barnean eta goizetik gauera, beren gogoko gauzetan aritzeko, bai musikagile bai interpretatzaille gisa.

Musikari hauek inguruan zuten giroa mehatxu arriskugarria zen edonolako motibazio artistiko nahiz humanoarentzat. Nolanahi ere, miraria eta lekukotasuna da musikari hauek, gosea, zikinkeria, jende-pilaketa eta gaixotasunak hor izanik ere, sormenari eustea eta gauza izatea edertasunez jositako lanak sortzeko eta emateko. Irudi ezkor eta etsia ematetik urrun, krudeltasuna eta zapalkuntza eraldatu eta indar, inspirazio eta distrakzio iturri bihurtu zituzten.

Euren eta entzuleen onerako, Terezíngo musikak betekizun berebizikoa izan zuen bertan zirenen biziraupen espiritualean. Joza Karas historialariak argi adierazi zuen: "Gorputzarendako janaririk ez zelarik, arimarendako janaria zegoen".

TEREZÍNGO UMEEK *BRUNDIBÁR* EMAN ZUTENEAN

Brundibár gutxienez 55 aldiz eman zuten Terezínen. Opera hau piezarik estimatuenetakoa bihurtu zen; emanaldi bakoitzean sarrera-eskari handia izaten zen eta berehala agortu egiten ziren.

Egoera honetan ikusiko dugu lan hau antzetzua: opera, entseguak eta ume hauen egoera, entseguak egiten zituztelarik opera emateko Terezíngo beren kideentzat edota erregimenaren propagandarako bisitariarentzat .

Ontasuna gaiztakeriaren gainetik garaile ateratzen delako mezua motibazio handikoa zen prisionero zapalduentzat, *Brundibár* pertsonaia Hitlerren parean jartzen zuelako. Zorionez, bi faktore izan ziren lagungarri lan hau SSak ontzat eman zezan:

- Umeen opera bat umeek emana gauza onuragarritzat jotzen zuten.
- Txekieraz kantatua zen, Nazi alemaniarrendako hizkuntza arrotza.

Zoritxarrez, honek galarazi egiten zien hizkuntzaz alemanak ziren presoei ere opera ulertzea. Baina ulertzeko edo emateko aukera izan zuten guztientzat, umeak gehienbat, bai eta bertatik bertara ikusteko aukera zutenentzat ere, eguneroko borrokatik aldendu eta gogoia betetzen zien aringarria zen.




Brundibárren azken eszena, Terezín

Terezingo bizitza musikala islatzen duten irudiak eta gauzak



Theresienstadt (Terezin) hiriko kafe-konzerturako sarrera



Konzertua kafetexean, Bedrich Fritta



Konzertua logelan, Helge Weissova neskatokarena

7. Mutiko judu baten egunerokoa



Meharra, luzanga, ile gaztain kolorekoa eta begi urdin ederrekoa zen Ginz gaztea. Margotzea, marraztea eta eskura zuen guztia gogo biziz irakurtzea zituen gustuko. Zortzi eta hamalau urte bitartean bost eleberri idatzi zituen, eta Julio Vernerekiko miresmena erakusten duten izenburuak eman zizkien (*Pragatik Txinara, Ataiko Jakintsua, Lurraren erdirainoko bidaia, munduari bira segundu batean*). Azkena besterik ez dugu ezagutzen, ordea, *Kobazuloen garaiko bisitaria* izenekoa. Honi Petrek gehitu zion epilogoia ileak lazteko modukoa da:

“Halaxe libratu zen Kongo belgikarra torturatzailleaz, eta mundua ustezko pizti prehistoriko hartaz. Baina gure buruari zera galdetu behar diogu, alegia, ez ote den agertuko Lurraren gainean beste pizti bat, hura baino are okerragoa, gaiztakeriari emana eta bitarteko tekniko modernoenez hornitua, Gizateriari zigorrik latzenak pairaraziko dizkiona”.

Estatu Batuetako Columbia espazioko traspordadorea 16 minuturen buruan lurreratzea zen Floridan. 2003ko otsailaren 1eko goizeko bederatzia ziren (hango ordutegia). Ontziko zazpi tripulanteek hitz eginak ziren ontziaren egoeraz basean zeudenekin lurreratzearen aurreko uneetan. Tripulanteetako batek, Ilan Ramon izenekoa eta espaziorako lehian sartzen zen lehen astronauta israeldarra zena, sakelan gorde zituen, lur hartu aurretik, Biblia txiki bat eta Auschwitzeko heriotz-eremuan hil zen ume judu batek egindako marrazkia. Eguratsa jotzean ontzia desintegratu egin zen. Ezbehar lazgarri hark agerira ekarri zuen Petr Ginz Pragako nerabe judu eta Holokaustoaren biktimitako batek bizi izandako trajedia.



Petr Ginzen marrazkia

Jiri Ruzickak Pragako Mondrany auzoko bere etxeko telebistan astronautak zeraman Ginzen marrazkia ikusi zuenean, berehala gogorarazi zizkion sabaian gordeta zituen marrazkiak. Petr Ginzen egunerokoak ziren, naziek ezarritako akabatze metodikoaren lekukotasun lazgarria, xalotasunetik eta onberatasunetik ikusita. Familia hartatik bizirik iraun zuen bakarrak, Israelen bizi den haren arreba Eva Pressburgerek, idazkera ezagutu zuen: “eta bertan deskribatzen diren gertaerak ere gogoratu nituen”.



Pragako ume judu honek bi urtez idatzi zuen bere egunerokoa. Mende erdi luzean galdutako koaderno hauek 2003an aurkitu zituzten. Terezinen egin zituenetik zati txiki bat besterik ez da gorde. 120 koadrotik goiti margotu zituen; Vedem aldizkaria sortu eta zuzendu zuen, zigor-eremuko 1417 sektoreko 1 eraikineko gazteen aldizkaria zena. Hamaika poema eta hainbat eleberri idatzi zituen. Gazte serio eta gogoetatsua bihurtu zen. Eva bi urte geroago iritsi zen Terezínera, eta 1944ko irailaren 28an anaia ikusi zuen Auschwitzerako trenean sartua. “ogi xerrak eman nizkion Petri leihotik. Denbora ere izan nuen hari eskutik heltzeko burdinetan zehar, ghattoko goardiak handik egotzi baino lehen”. Iritsi eta gutxira hil zen gas-kamaretan, eta haren gorpua hobi komunera bota zuten. 16 urte besterik ez zuen.

Haren egunerokoaren zati labur zenbait

Hona hemen haren egunerokoaren zenbait zati labur, egilea eta haren inguruan gertatzen zena, berari bezala milaka umeri gertatzen zitzaiena, alegia, hobeki ezagutu ahal izateko.

Egunerokoa 1941eko irailaren 19a eta 1942ko abuztuaren 9a bitartean idatzi zuen Petr Ginzek. Ez zuen idatzi inork irakur zezan; nerabe baten eguneroko irudipenak dira, gauzarik txikienak biltzen dituztenak: lehengusuen bisitaldia, Popper adiskidearen burutazioak, ikastetxeko zigorrak: “goizez, ibilaldia, arratsaldez, eskola”, edota hitz laburreko “deus berezirik ez”, heriotz-eremuetan galdutako beste nerabe baten, Ana Franken antzeko moldean, alegia. Horiek guztiak amonak oparitutako inkrustazioekiko lumaz idazten ditu Petrek: futboleko txapez jostatzeko kontuak, latinerazko aditzen deklinabidea...

Bere eguneroko lehen oharra 1941eko irailaren 19an, ostiralez, idatzi zuen Petrek: *“Ezaugarri bat atera dute juduentzat, gutti goiti-beheiti honelakoa (sei muturreko izarra marrazturik)”*.

Orrri hauetan alemanek okupatutako Praga hiriko jendeen bizimodua biltzen da, haien zailtasunak, beldurrak. Guztiak lehen bezala dela ematen du, baina pixkanaka agindu berriak ezartzen dira juduek eman behar dituzten gauzak zehaztuz, nora ez daitezkeen joan, zein garraiobide ez dezaketen erabil...



1942ko urtarrilaren 1ean, hau idatzi zuen Ginzek:

“Orain erabat arrunta dena eskandaluzkoa zatekeen garai normal batean. Esaterako, juduek ezin erosi dute ez frutarik, ez antzarrik edo hegaztirik, gaztarik, tipula eta baratxuririk, ez eta beste gauza anitz ere. Tabakoaren arrazionamendu txartela ez diete ematen ez presoiei, ez eroei eta ez eta juduei ere”. Hauez guztiez gain, juduek ez dute tranbien, autobusen eta trolebusen aurreko bagoian ibiltzerik, eta ibai bazterrean ere ez daitezke paseoan ibil:

“Honezkero mundu guztiak daki zein den judua eta zein arioa, judua izar hori-beltzagatik ezagun delako. Eta juduak, behin markatuta, aginduak bete egin behar ditu”.

Goiz batez, harri eta zur dago Petr atxiloketa bat ikusirik:

“Vezanska karrikako ostatu baten aitzinean furgoi bat eta espaloian goardia lerro bat topatu ditugu. Gestapokoek ostatu barnean zirenak aterarazi (zortziren bat) eta zuzen-zuzen furgoian sartu, ateak itxi eta eraman egin dituzte”.

Beste une batez, honako hau jaso zuen: “Jakín dugunez, azken aldian (nonbait) belarrondokoak izaten dira (juduentzat, jakina) eta izarra ezkututzen saiatzen gara...” Edo “aleman batek tranbiatik kanpora egotzi ninduen oso modu txarrean. Heraus! (kanpora!) esan zidan, eta jaitsi behar izan nuen...”

1942ko otsailaren 1ean, etxean, etxeakoekin egonen den azken urtebetetze egunean, opari zerrenda jaso zuen:

“Amak egindako ogi gozo bat, oharrak hartzeko liburu bat osotara zuri, laranja-azalak, zapi bat...”.

ARIKETAK

1. Sinboloak eta besokoak

Petr Ginz ume juduak honako hau idatzi zuen lehenengoz bere egunerokoa 1941eko irailaren 19an: *“ezaugarri bat atera dute juduentzat, gutti goiti-beheiti honelakoa”*:



“Honezkeru mundu guztiak daki zein den judua eta zein arioa, juduak izar hori beltzagatik ezagun duelako. Eta juduak, behin markatuta, aginduak bete egin behar ditu”.

Nazien Alemanian besokoak erabili zituzten jendea bereizteko. Militar naziek besoko gorria eramaten zuten, *gurutze gamatua edo esbastika* beltza zirkulu zuri baten gainean zuena. Juduak, berriz, Petrek kontaktzen duen moduan, besoko horiaz markatuak ziren, *Dabiden izarra* beltzez ageri zutela:



-Egizue kontu nola sentituko zinateketen behartuko bazintzete halako sinbolo bat duen besoko bat jaztera, auzo horretakoak izateagatik, edota ilehoriak izateagatik, ile kizkurra izateagatik, altuegiak izateagatik, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, edota halako erlijio edo nazionalitatekoak izateagatik... Egizue kontu, gainera, ezin duzuela gauza normal pila bat egin horregatik, esaterako metroa edota autobusa hartu, gurasoekin bizi, ikastetxera gainerako umeekin joan edota litxarreriak kioskoan erosi. Mintza zaitezte ikasgelan, ea zer iruditzen zaizuen, zuen bizitza nola aldatuko litzatekeen, etab. Zuen ustez, egun ba al da hauen moduko bazterketa egoerarik, besokorik ez izanda ere?

-Egin ezazue bakoitzak besoko bat, desberdinak, asmatutako sinboloren bat ageri duena, edo gehien gustatzen zaizuen: lorea, pastela, musika nota bat, bakearen usoa... egizue trukaketa ikaskideekin irudikatzeke guztiok desberdinak garela eta horrek oparagoa egiten duela gure elkarbizitza.



2. Leihoetako abesbatza¹

Aninka eta Pepicék gure adiskideek, goizean esnatu eta soinketa egiten dute katua, txoria eta zakurra lagun dituztela. Karrika gero eta biziago dago, eta berehala jende guztia prest dago egunari hasiera emateko. Leihoez bestalde, umeen ahotsak entzuten dira, eguneko lanak kantatzen dituztela. Egizu bat abesbatz horrekin kanta soil honetan, eta egizu proba letra aldatuta, eguneroko beste zenbait lan aipatuz:

Allegro

Ahotsa

Xilofonoa

Mar la al fombra va a lim-piar A-na el dia rio va a com-prar

5
El ca-fé pre - pa-ra Juan y la ca-ma ha - ce Pi-lar El sa-lón or-

10
de-na An-drés Sa-ca al pe - rro Jo - sé Luis Vi-cky se pre-

14
pa - ra ya De-sa - yu - na con Da-vid

¹ Opera gaztelaniaz antzeztuko denez, partiturak eta testuak entzunen duzuen bezala agertzen dira gida honetan.

3. Azokako kanta

Aninka eta Pepicék azokara doaz ama gaixoa sendatzeko esnea erostera. Han, saltzaileak oihu batean ari dira euren salgaiak eskainiz. Errepara iezaiezu eta saia zaitez hizkiz hizki betetzen mezu bakoitzaren hutsuneak, zer saltzen duten jakiteko:





- Behin "pregoi" bakoitza osaturik, errepika ezazue erritmoaz eta ozenki ikasgelan, azoketan euren salgaia eskaintzen duten saltzaileen eran. Egizue perkusio-arrada kantua laguntzeko. Instrumentu egokirik ezean, mahaigainean egin dezakezue danbor-hotsa hatzamarrez.

- saltzaile bakoitzak zer saltzen duen jakiteko hitz giltzarriak aurkitzea lortu ez baduzu, beharbada lagungarri izanen zaizkizu *leihotako abesbatzean* kantuz ari diren umeen erantzunak:



Pa - na - de - ro ¡bue - nos dí - as! Vén - da - nos su mer - can - cí - a



Ha lle - ga - do con su ca - rro el se - ñor de los he - la - dos



¡Ói - ga - nos, se - ñor le - che - ro: quie - ren le - che y no hay di - ne - ro!

- Ordena ezazu aurreko orriko komikiaren arabera.

- Ikas ezazue saltzaileen eskaintza eta koruaren erantzuna, eta kanta ezazue operan ikusiko duzuen modu berean, eskema honen arabera:

1. SALTZAILEA – KORUA – 2. SALTZAILEA – KORUA – 3. SALTZAILEA – KORUA

Saltoki eta saltzaile kopuruak handitzen ahal dituzue orain. Asma itzazue zuen produktuen berezitasunak agertzeko leloak, barazkiak direla, frutak direla, arraina edo haragia dela... saia zaitzete adibideetan bezala egiten, errima eta erritmo egitura emanaz. Saltzaile berri bakoitzari koruak emanen dion erantzuna ere asma dezakezue, ikasitako formula melodiko bera erabilita.

4. Organilo-joleak eta organiloak

Organiloa batetik bestera ibiltzeko moduko instrumentua da. Zilindro koxkadun batez erresonantzia kaxan diren sokak jotzen ditu. Zilindroari organileroak eragiten dio biradera batez, eta ez da behar musika prestakuntza berezirik berau jotzeko.

Herriko festetan aspalditik erabiltzen zen instrumentu hau oraindik ere aditzen da Europa nahiz Amerikako karrketan, iibiltarien alaigarri. Iberoamerikako zenbait herritan, Argentinan eta Uruguain, esaterako, organito izena ematen diote. Mexikon, berriz, organilo-joleek langintza-gremioa osatzen dute eta tradizioa bizirik mantentzen dute.

Espanian, Madrilan erabiltzen dira oraindik ere, batez ere auzorik "kastizoenetan" ospatu ohi diren "berbenetan". "Chotis" dantza laguntzen dute organiloaz eta festak alaitzen dituzte, ezagunenak direlarik La Verbena de la Paloma eta San Antonioren, han agertzen baitira madrildarrak "chulapa" eta "chulapo" jantzita.



↳ **Berbena festa**

Jatorrizko operan, karrketan bere organiloa joaz bizimodua ateratzen duen musikaria da *Brundibár*. Ikus dezakezunez, Europan aspaldiko instrumentua da organiloa, bai karrketan bai festetan entzun ahal izan dena.

Hona hemen gure proposamena: madrildarren berbena bat antzeztea zuek. Paperak banatu: limoi-uraren saltzailea, txurro saltzailea, "txulapoak" beren "gorra" buruan eta "txulapak" Manilako "manton" horiek jantzita, uztaiaz edo pilotaz jostatzen diren umeak, janari saltokiak eta, jakina!, organilo-jolea, bere organiloaz "chotis" dantza laguntzen.





Organiloa jotzera!

Brundibár karriketan barna dabil bere organiloaz, eta noizean behin baltse moduko melodia bat jotzen du. Berau kantatzeko gauza izanen zinateke?:

Valse (Lento cantabile)



Hala ere, Brundibárrek bere organiloa jotzen duelarik, lagungarri soil batek laguntzen du doinu nagusia. Egin itzazue bi talde ikasgelan xirula eta xilofonorako moldaketa hauek interpretatzeko. Bana itzazue bi ahotsak: doinu nagusia eta lagungarria.

Valse (lento cantabile)

Xirula

Xilofonoa

4

7

5. Akordeoiak

Operaren errepresentazio honetan, *Brundibárrek* ez du organiloa jotzen, gure inguru hauetan eta Europako beste herri askotan ere ohikoa den instrumentua baizik.

Akordeoia haize-instrumentua da, mihiak aske dituen. Zurezko bi kaxa harmoniko ditu, eta bien artean auspo bat. Eskuin eskuko kaxak, gainera, diapason bat du, pianoaren moduko teklatura duena normalean, baina botoiak edo tekla biribilak ere izaten ahal dituzte, akordeoi motaren arabera. Ezker eskuak botoidun teklatura jotzen du, hor direlarik baxuak eta laguntzeko akordeak.



Akordeoia (soinua)

Kiril Demian Cyrillek erregistratu zuen 1892an instrumentu hau *akordioi* izenaz. Auspo bat zuen, eta akordeak produzitzen zituzten bost botoi (akorde bat auspoa irekitzean eta beste bat ixtean). Hamar akorde hauek aski ziren herriaren gogoko hamaika kanta laguntzeko, eta erabiltzen oso erraza egiten zuten instrumentua, ondorioz berehala hedatu baitzen. Instrumentu haren hainbat eraldaketatik sortu dira egun ezagutzen ditugun akordeoi diatonikoa (teklak eta eskala diatonika nagusiak produzitzen dituzten botoiak dituen) eta kromatikoa.

El **acordeón diatónico**, se construye y manufactura en Europa, aunque tiene una gran demanda en América Latina. Colombia compra el 80% de los acordeones que se producen en Alemania. En numerosos países de Iberoamérica, se usa para la interpretación del *Vallenato*, la *Cumbia*, así como el *Merengue* dominicano y otros ritmos tropicales.

Nafarroan eta Euskal Herri guztian instrumentu hau folklore tradizionala interpretatzeko erabiltzen da eta *trikitixa* izena ematen diote, normalean harekin batera jotzen den panderoaren soinuaren onomatopeiatik sortzen den izena, hain zuzen ere, *trikiti, trikiti trikiti...* Soinu-joleari *trikitilaria* esaten zaio.



trikitixa

Bandoneona akordeoiaren hurkoa da, baina kaxa karratua edo hexagonalak ditu, eta tinbre oso berezia. Izena alemanerazko *bandonion* hitzetik hartzen du, alegia, honen usteko asmatzailea den Heinrich Band (1821 -1860) alemanaren izenaren akronimoa. Argentinan errege da instrumentu hau eta tangoa laguntzeko erabiltzen da, giro triste eta melankoniatsua ematen baitio. Astor Piazzola musikagile eta bandoneon-jole bikainak bizitza osoa eman zion instrumentu honi.



bandoneona



☞ Instrumentuak eta instrumentu-joleak

Badakizuenez, bizimodua karrikan musika joaz ateratzen zuen organilo-jolea zen *Brundibár*. Zuek ikusiko duzuen bertsioan, ordea, pertsonai honek akordeoia jotzen du. Horregatik, bi instrumentu hauek aurkezten dizkizuegu, zuek ezagutu ditzazuen. Izenetatik hasiko gara: instrumentu bakoitzak izen diferentea du jotzen duen pertsonarentzat. Osa ezazue ondoko koadro hau instrumentua eta instrumentu-jolea parez pare jarritz. Bidenabar, ahoskera ariketa egin ezazue:

Trikitilari – Bandoneon-jolea –Organilo-jolea— Soinujolea

Instrumentua	Instrumentu-jolea
Organiloa	
Akordeoia (soinua)	
Trikitixa	
Bandoneona	

☞ Bertso eta instrumentuak

Ozen eta argi, eta tetelka egin gabe irakur zenitzake bi errima hauek? Aholku ematen dizuegu pandero batez edota antzeko batez laguntzeko, eta taupada baten gainean egiteko errezitatzea. Errepara ezazue bi poema hauek erritmo diferentek dituztela.

*Akordeoia, akordeolari
Zuk jo eta guk dantzatu
Eskusoinua, soinujole
Herri-besta ez gelditu*

*Trikiti, trikiti, trikiti, tran,
pandero jotzen
trikiti tran
trikitilari, trikiti tran,
jo eta jo
trikiti tran.*

👉 Instrumentuak eta herriak

Adi itzazue ondoko entzungai hauek eta geografiarekin lotu itzazue (Madrid, Argentina, Euskal Herria eta Kolonbia)

- Organiloa: *Chotis* bat
- Bandoneon: Astor Piazzolaren *Tangoa*
- Trikitixa: *Kepa Junkeraren* musika
- Akordeoia: Abel Antonio Villak jotako "*vallenato*" bat

Osa ezazue orain koadroa, instrumentu bakoitza erabiltzen den inguru geografikoa adieraziz:

Argentina – Euskal Herria – Erdialdeko Europa eta Madrid – Europa eta Latinamerika.

Instrumentua	Inguru geografikoa
Organiloa	
Akordeoia	
Trikitixa	
Bandoneona	

6. Animaliarena eginez...

Opera honetan, pertsonai gehienak umeez antzezten dituzte, Terezin estraineko eman zutenean bezalaxe. Ume horietako batzuek animalien larruan sartu behar izan dute, besteak beste txolarrearen, katuaren edo zakurraren larruan. Geu ere saiatuko gara, bada.

Zera oroitarazten didazu...

Gure fisonomiagatik edo mugitzeko dugun era bereziagatik antz handiagoa izan dezakegu animalien batekin beste batekin baino. Baina... nola ikusten gaituzte besteek?

-Binaka jarri, ikasle bakoitzak erne begiratzen dio ondokoari eta zein animalia ekartzen dion gogora ikusten saiatzen da: txolarrea, katua edo zakurra? Elkarri esanen diote ikusi dutena, zergatik azaltzen saiatuko dira, eta bikoteak aldatuko ditugu prozesua berriz egiteko. Eginahalak eginen ditugu argi azaltzeko lasai pentsatu behar dutela, eta behatu ondokoaren ezaugarriak, alde batera utzita begirunea eta irainak.

Zera bihurtzen naiz...

- Ariketa honetarako musika samurra aukeratuko dugu. Ikasle guztiak lurrean jarriko ditugu, euren baitara bilduak, ahalik eta espazio txikiena hartuz: zelula bana dira, pixkanaka animalia bat sorraraziko duena. Aldez aurretik aukera dezakete, edo euren mugimenduei men eginez aritu. Funtsezko osagaia, eta animalia bilakaeraren oinarri, bizkar hezurra izanen da: tente, lurrarekin paralelo, okerturik... haren jarrerak animalia baten edo beste batengandik hurbilago jarriko gaitu. Hark esanen digu bi hankakoak garen, hegala ditugun, lau hanketan ibiltzen garen, arrastaka edo igeri ibiltzen garen...

Animalien mundua:

- Ikasleak banatu eginen ditugu aula guztian barna eta banaka-banaka aukeratu eginen dute antzeztuko duten animalia. Irakasleak seinalea emanda, guztiak hasiko dira ibiltzen, animalia horren ezaugarrien arabera mugituz: jarrerak, mugimenduak, abiadura, keinuak, soinuak...

- Irakaslearen bigarren seinalearekin, animaliak euren artean harremanetan hasiko dira, eta elkartze horietako bakoitzaren ondoriozko eraginak inprobisatu beharko dituzte. Ohikoena zera da, hasieran dena harraparia-ehizakia harreman bortitz hutsa izatea, eraso eta (denbora izanez gero) ihes egitea... Egoera hauek probesten ahal ditugu ariketa geldiarazi eta animalien beste jokabide batzuk proposatzeko (usainka, begirada zorrotz...) jostaketak, janaria bilatzeko elkar-hartzea, etab.

- Orain zera egiten saiatuko gara, nolabait ere "humanizatu" animalien arteko komunikazioa: hainbat egoera proposatzeko ditugu, bertako elkarrizketak animalien onomatopeia eta soinu hutsez egiten ahal direlarik, baina gizakion doinuez (galdera, ustegabea, haserrea, etab)

7. Azken korua martxa pausuan

Ikuskizunari amaiera emanez azken korua dugu, operaren mezua adierazten diguna: batasunak indarra ekartzen du. Ume guztiek bat eginik Brundibár zitala gainditzea lortzen dute.

Baina, erne! Publikoak ere parte hartzen baitu koru honetan, eta bere ahotsaz bat egiten du agertokiko artistekin. Beraz, ongi ikasi ondoko kanta hau eta goza ezazue une honetaz emankizunaren egunean.

Martxa bat denez, erritmo oso markatua du, baina doinua zail samarra suerta daiteke. Ez kezkatu, ikas ezazue martxan ibili ahala, alegia, "urratsez urrats":

1. Irakurri edo errepika ezazue hitza imitatuz, erritmoan, esaldiz esaldi, gogoan hartu harte.
2. Errezitatu ezazue ikasgelan barna desfilean zabiltzaten bitartean, beltzen erritmoan.

El dic-ta - dor per-dió Ven-ci-do se mar-chó

6 He-mos lo - gra-do al fin El triun-fo con-quis-tar

11 con de-ter - mi-na-ción To-dos u - ni-dos

17 He - mos ven - ci - do Es la o-por-

21 tu - ni-dad Pa-ra vi - vir en paz Pa - ra vi - vir en paz



Une honetan, Aninka eta Pepicek protagonistek ondoko hitz hauek errezitatuko dituzte:

Pepicek: *Es hora de aplaudir,
la historia llega al fin.
ha terminado bien,
y a casa hay que volver.*

Aninka: *Mas antes de salir,
y todos en unión,
queremos repetir
el canto vencedor.*

Ondoren, guztiok errepikatuko dugu aurreko orriko kanta-martxa eta elkarrekin emanen diogu amaiera era honetan:

Nun-ca el dic-ta - dor a-quí tri - un - fa - rá

7 He-mos lo - gra-do al fin Con mues -

14 tras vo - ces Ga - nar la li - ber - tad

- Ikasi kantaren azken zati hau.
- Aukeratu guztien artean Pepicek eta Aninka izanen direnak, eta antzestu osorik garaipenezko azken eszena hau.
- Parte har ezazue eta goza ezazue musikaz emankizunaren egunean.

ERREFERENTZIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Baliabide eta material didaktikoak "on-line" aurkitzeko orrialdea:

http://www.bamah.org/merkaz/jomer_on_line/iomhashoa.html

BIDEOA (ingelesez)


Terezíngo biztanleen errealtatea Naziek nola ezkutatu zutenari buruzko CBS kateak egindako oso bideo interesgarria. Gainera, Gurutze Gorriko komisorako egindako Brundibárreko antzezpena nola erabili zuten naziek ere azaltzen da. Bizirik atera ziren opera egin zuten ume batzuen hitzak agertzen dira, baita antzezpen baten jatorrizko irudiak ere. Protagonistak eta lekukoak izan zirenen egungo testigantzak ere agertzen dira, hurbileko ikastetxe baten haurrek egindako oraingo antzezpena ikusteko Terezínera egindako bisita batean.

http://www.cbsnews.com/sections/i_video/main500251.shtml?id=2512408n

BIBLIOGRAFIA (ingelesez)

Tamalez, euskeraz ala gaztelaniazko bibliografiarik ez dago, horregatik umeen bizi-egoera azaltzen duten hainbat erreferentzia interesgarri eskuratu dizuegu. Erraz aurki dezakezue interneten bidez.

Gure ustez aski interesgarria da eta ingeleseko irakaslearen laguntza eska dezakezue, Terezíneko egoerak eta bizipenak, eta hain bizimodu gogorra gainditzeko adierazpen plastiko, literario edota musikalean parte hartu zutenen haurrak sakonki ezagutzeko.



BRUNDIBAR

Maurice Sendak – Tony Kushner

Michael di Capua Books

Hyperion Books for children

2003an egindako liburu-moldaketa, Tony Kushnerrek ilustratuta, Maurice Sendak irudigile ospetsuaren laguntzaz. Brundibárreko pertsonaiaen simbolismoa Hitlerren bezalako bibote batez nabarmentzen dute.

Liburu honek New York Timesen *Book Review's* saria jaso zuen, 2003ko hamar liburu oberenetariko bat izateagatik. Urte berean Chicago Opera Theater antzeztu zen *Brundibár*, libreto eta irudi hauetan oinarrituta



FIREFLIES IN THE DARK


(Ipurtargiak ilunpetan)

The story of Friedl Dicker-Brandeis and the children of Terezin

Egilea: **Susan Goldman Rubin**

Argitaletxea: Holiday House /New York

Friedl Dickerrek, margolari judu txekiarra, Terezíngo kontzentrazio-esparruko haurren irakaslea izan zen urteak azaltzen ditu. Berak eta hurrek egindako lanak barne daude, baita bere egunkariaren zatiak eta kontzentrazio-esparru honetik bizirik atera zirenekiko elkarrizketak ere.




THE CAT WITH THE YELLOW STAR

(Katua izar horiarekin)

Ela Weissberger / Susan Goldman

8 eta 10 urte inguruko ikasleentzat den liburu honetan Ela Weissbergeren historia kontatzen da. 1942an, 11 urtekin, bere familiarekin Terezíngo kontzentrazio-esparrura bidali zuten. Bera bizirik atera zen eta hainbat elkarrizketen bidez bere eguneroko bizitza eta Brundibár operako entsaioak eta antzezpenak nolakoak ziren kontatzen digu. Berak katuaren papera egin zuen askotan.

Musika, arte, lagun eta irakasleen botereari buruzko itxaropen mezu bat dauka, heriotza, etsipena eta bizirik atera ez ziren humeak begien bistatik alde egin qabe.



... I NEVER SAW ANOTHER BUTTERFLY...

(...Beste pinpilinpauxarik ez dut inoiz ikusi...)

Terezíngo kontzentrazio-esparruko umeen marrazkiak eta poemak, 1942-1944.

Hana Volavkova

Liburu hau 10-11urteko ikasleekin gai historiko eta etikoei buruz hitz egiteko ezinbesteko tresna da. Bizi-egoera izugarri eta krudeletan harrapatutako ume batzuen ikuspuntutik, beraien poema eta marrazkien bidez, Bigarren Mundu Gerran Terezíngo kontzentrazio-esparruan atxiloturik sortzen ziren arazo eta sentimenduak irudikatu eta ulertzeko aukera dugu.